



## **EPPKren agurra Gazte Topaguneari**

Euskal Preso Politikoen kolektiboaren agurrik sentikorrena helarazi nahi dizuegu “Bulkada berrien garaia da” dinamikaren baitan bildu zareten gazte guztioi. Agurrik sentikorrena etorkizuneko Euskal Herria marraztuz, jendarte aske eta justu batean bizitzeko ahalegina egiten ari zareten gazteoi.

Agurrarekin batera, gure esker ona adierazi nahi dizuegu, Preso Politikoen Nazioarteko Egunaren testuinguruan hitzez bederen zuen artera agertzeko aukera hau eman diguzuelako.

Pozgarria da guretzat belaunaldi berriekin bat egitea etorkizunari begiratzen diogunean; indarrak suspertzen dizkigu zuen grinak, geroaz eta gure herriaren etorkizunaz kezkatzen zaretela ikusteak. Ilusioz betetzen gaitu ondoren zatozten belaunaldietako kideok lekukoa hartzeko prest zaudetela ikusteak.

Iraganean ere belaunaldi bakoitzeko gazteak izan baitira geroari begira egonezin handiena sentitu dutenak eta etorkizun hobe baten alde eskuzabaltasun osoz konprometitu eta inplikatu direnak. Iraganeko belaunaldiek, sarritan testuinguru oso zail eta gogorretan erakutsi dute gai direla dena emateko, etorkizun hobe, justu, sozialista eta zoriontsuago baten alde borrokatzeko. Iraganean ere erakutsi dute gazteek gai direla helduak bezain zentzudun izateko, eta gazte haien inizatiba eta ahaleginari esker iritsi gara iritsi garen lekura.

Oraindik bide luzea dugu, ordea, nahi genukeen lekura iristeko, guztion helburuak lortzeko. Baina badugu konfiantza biharko Euskal Herria herri independentea, sozialista eta baketsua lortzeaz gain, jendarte justu, feminista eta zoriontsuagoa osatzeko ardura hartuko duzuela. Militante gisa zuekin gaude, gurekin zaudete, eta zuen eta gure belaunaldien artean elkarlana egiteko ardura dagokigu zuei eta guri.

EPPK-k, bere ezaugarri historikoen sustraiak lurrean tinko dituela, badaki unean uneko baldintza eta erronken aurrean hausnarketa egin eta erabakiak hartzea dagokiola. Ezker Abertzaleak norabide estrategikoa berriro ondoren eztabaida prozesua burutu zuen gure kolektiboak; orduetik igaro den urte eta erdi honetan mantsoa izan da ibilaldia eta emaitzak tantaka baizik ez dira iritsi. Gure kolektiboa azken urteetako txikiena bada ere, handia da oraindik, euskal preso politiko gehiegi dago oraindik espainiar eta frantziar espetxeetan, larriki gaixorik espetxealdi malgutuan dauden kideak ahaztu gabe.

Urgentziazkoa da gaixorik diren kideen askatasuna, adin handikoena, guraso direnena... Eta lehentasunezkoa da euskal preso politiko guztien kaleratzea, deportatu eta erbesteratuen etxeratzea. Lehentasunezkoa

da, presorik gabeko herria amesten dugulako eta behar dugulako, senideak eta lagunak preso dauden bitartean ezin garelako aske izan.

Harro gaude gure ondorengo belaunaldietan zatozten gazteotaz, zuetaz, geroaz eta etorkizuneko erronkez arduratsu zaretela ikusteaz. Konfiantza ematen digu inguruaz indiferente ez zaretela ikusteak, feminismoa, euskara, gizarte honetako kaltetuenekeko elkartasuna... zuen kezka direla ikustean. Asko dugu elkarrekin partekatzeke, elkarrekin egiteke, guztiontzat lortzeko, eta konpromiso horretan grinatsu jarraitzera animatu nahi zaituztegu, jokoan dagoena geure herria eta geure geroa delako.

Euskal Herria bihotzean  
2019ko apirilean

**EPPK**

**Euskal Preso Politikoen Kolektiboa**

Euskal Presoak Euskal Herrira!  
Amnistia! Independentzia!